

HEZKIDETZA DA BIDEA!

Berdintasunezko elkarbizitzarako material didaktikoa





Egilea: STEE-EILAS.

Kartelak: Marra Servicios Publicitarios, SL

Inprimaketa: Gráficas Sortu S.Coop.

L.G.: SS-164-2010



AURKIBIDEA

Hitzaurrea

Sexismoa eskolan transmititzeko erak

Material didaktikoaren ezaugarriak

Unitate didaktikoak:

Harremanak berdintasunean:

- Hezkuntza afektibo sexuala
- Elkarrerantzukizuna
- Ogibideek generorik ba ote?

Indarkeria sexistaren prebentzioa:

- Bortizkeriarik txikiena ere ez!
- Tratu onak
- Nire buruaren jabe ni neu
- Ikusezintasunak ere erasotzen gaitu



HITZAURREA

Azken urteetan STEE-EILAS sindikatuan hainbat unitate didaktiko egin izan ditugu martxoaren 8a eta azaroaren 25aren inguruan, ikastetxeetan neska eta emakumeen eskubideak eta indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko asmoz.

Unitate horietako batzuk egokitu eta eskuartean duzuen karpeta osatu dugu; karpeta hau aldiz ez dago bukatua, ez, hemendik aurrera sortzen joango garen unitateek osatuko dute urtez urte.

Ikastetxeetara bidaltzen ditugun unitateekin gizon eta emakumeen artean aukera berdintasuna lantzeko tresnak eman nahi dizkizuegu irakasleoi, jakinik hala ere, oso material xumea dela eta benetako aldaketa emateko ikastetxe osoaren inplikazioa behar dela ikastetxe hezkidetzaillea eraiki asmoz...

Ez hori bakarrik, sexismorik gabeko hezkuntza praktikan jartzeko administrazioak hezkidetzaren aldeko apustu garbia egin beharko luke, eskola mistoaren ordezkari eskola hezkidetzaillea ezarri, horrek dakarren baliabide behar guztiekin: magisteritzako ikasle eta ikastetxeetako langile guztien formakuntza eta elkarlana, material, espazio eta denbora berriak... Eta, egia esan behar badugu, ez dugu horren zantzu izpirik ikusten, are gehiago, berdintasun legean ezartzen diren zehaztapenak curriculumetan ez dira agertu ere egiten aipamen orokorrak salbu.

Gure ustez gai honetan aurrera egin beharrez atzera jo dugu.

Hezkidetzaren aldeko konpromiso sendoa hartzen ez den bitartean, guk hemen jarraituko dugu urtez urteko ekarpenekin, norbaiti lagungarri egingo zaizkiolakoan.

Lan honi hasiera emateko eskolan sexismoa nola transmititzen den aztertuko dugu, autore desberdinen lanak oinarritzat hartuz; ondoren materialaren ezaugarriak azalduko ditugu eta bukatzeko unitateak aurkeztuko dira.

Hezkuntza hezkidetzaille bateranzko bidean lagungarri egingo zaizuelakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

STEE-EILAS



ESKOLAN SEXISMOA TRANSMITITZEKO ERAK

Emakumeak hezkuntza mundura hurbildu eta sartzeko bidea zailtasunez eta oztopoz beteriko ibilbidea izan da. Gainera, eskolaren beraren bilakaeran, bertan landu eta garatu diren ezagutzak ikuspuntu androzentriko batean oinarritutakoak izan dira. Neska eta mutilentzako eduki desberdinak zeuden eskola bereizitiko eskola mistora pasa da, non neskek eta mutilek espazio berbera konpartitzen duten eta eduki berberak irakasten zaizkien, eredu maskulinoan oinarritutakoak, hain zuzen ere.

Beste era batera esanda, gizonen eta gizonentzat eraikitako hezkuntza eremuan emakumeak sartzean sortu da eskola mistoa, ez da ordea, gizonen eta emakumeen eredu kulturalen uztarketan oinarritutako hezkuntza.

Emakumeen historia ez da eduki curricularretan sartzen, ez dira emakumeak ikusgai egiten eta ez dira beraien jakintzak ikasi eta transmititzeko legitimotzat hartzen.

Era berean, gure ikasleak tradizionalki emakume eta gizonen eman zaizkien paperetan heziak direla erakusten duten jarrera eta portaerak ikusten ditugu gela eta eskolako espazio desberdinetan. Paper hauek maskulinoaren balorazio sozial positiboagoa erakusten dute femeninoarena baino.

Geletan, hezkidetzan eta sexuen arteko berdintasuna apenas lantzen da sistematikoki, bereziki konprometitutako irakasleen kasu puntualetan izan ezik. Administrazioak ere ez du behartzen legeetan ezarritakoa praktikan jartzera, honek prestakuntzan inbertsio gehiago, denbora eta espazio berriak sortzea eta material berrien hornidura ekarriko lukeelako.

Eskolan estereotipo sexistak ezabatzeke lehen pausua ondokoa da: sexismoa eskolan instituzionalizatzen ari diren prozesu eta mekanismoak (konziente eta inkonzienteak, ageriko zein subliminalak) detektatzea, alde batetik eta ondoren, gai hauei helduko dien eredu didaktiko eta antolakuntzako egitea.

Egia da, nesken diskriminazioak eskolan ez duela eraginik hauen maila akademikoan; hala ere, diferentziazko tratu diskriminatzaile horrek eragin handia du izaera femeninoaren sorreran eta eraikuntzan, ikasle bikainenak diren neskek ere, hazten doazen neurrian, eremu publikoan bigarren mailako papera barneratzen baitute.

Ikus ditzagun ondoren, eskolan eredu sexista transmititzen laguntzen duten hainbat arlo:

- Sexismoa curriculo esplizituan: irakasten dena eta ez dena irakasten.

Programazio curricularrean eta testu liburuetan sexismoa sistematikoki proiektatzen da, bai emakumezko pertsonaia eta bizimodu ereduaren omisioaren bidez, baita emakumeen gutxieste eta infraerrepresentazioaren bidez ere. Testu liburu gehienetan emakumeen presentzia eza ia erabatekoa da. Era berean, emakumezko pertsonaiak azaltzen direnean, hauen portaera eredu maskulinora atxikitzen da. Hau da, nabarmentzen diren emakumeak gizonaren arketipora egokitzen direnak dira, edo berdina dena, beraien lanak bizitza publikoko alderdi garrantzitsuren batean laguntzen dutenak.

Emakumeen bizimoduak, tradizionalki eremu pribatuan garatu direnak, testuetatik kanpo uzten dira erabat. Historiarentzat garrantzitsuak direnak herrien arteko gudak dira, boterera iristeko borroak eta gizartearen produkzio erak; baina ez eguneroko bizitzako erreprodukzio erak, hau da, gizarteek biziraupenerako egiten dutena: elikadura, zaintza, harreman afektiboak, etab. Beraz, ez dira soilik emakumeak baztertzen, emakumeen bizitzeko era, eta ondorioz, emakumeen kultura ere kanpoan uzten da.

Testu liburu, ipuin eta beste material didaktikoetan azaltzen diren estereotipo maskulino eta femeninoek mutilak indartsu, azkar eta independente gisa definitzen dituzte; neskek, bestalde, menpeko, maitekor, esaneko eta kolaboratzaile gisa agertzen dira. Egiten diren ekintzak, jolasak, janzteko erak, jokaerak, ezartzen dituzten harremanak... denak dira desberdinak neska edo mutil izan.

Material curricularretan ikuspuntu bakarra azaltzen da eta ahaztu edo marjinatu egiten dituzte historian zehar emakumeek egin dituzten ekarpenetan lagunduko luketen beste alternatibak. Honen ondorioa da ikasleek gizonentzako lan, gaitasun, eta abarri buruzko informazio zehatz eta gehiegizkoa dutela eta ez dutela batera informaziorik jasotzen emakumezkoen bizimodu, lan, ekarpen eta abarren inguruan. Horrela, jasotzen duten errealitatea guztiz faltsututakoa da; honek beraien pertsonalitatean eragin handiak ditu, batez ere autoestimuan.





- Sexismoa ezkutuko curriculumean (genero estereotipoen transmisio kulturala eta rol sexualen definizioa).
 - ✓ Desberdintasun sexuala espazio eta forma askotan sortu eta erreproduzitzen da. Nahiz eta sexismoa curriculum irekian ere presente egon, batez ere ikusezina den diskriminazio mota da. Irakasleriaren itxaropenak, ikasleekin elkarrekintza, batzuk eta besteek errepikatzen dituzten eredu maskulino eta femeninoak, besteak beste eskola bizitzako alderdi ezkutua izan arren, neska eta mutilen portaeren definizioan indar handia dute.
 - ✓ Eskolak ez ditu norbanakoak hartzen orri zuriak balira bezala, baizik eta genero maskulinoan edo femeninoan sozializatutako neska eta mutilak jasotzen ditu. Eskolak egiten duena da, egitez edo ez egitez, estereotipo maskulino eta femeninoak indartu, mantendu eta errepikatu. Ardura zuzenena ez duen instituzioa izan arren, ez da egia ere, ezin duenik ezer egin diskriminazio sexistaren kontra. Nahiz eta ez izan instituziorik diskriminatzaileena, diskriminatzailea da. Horrela auzitan jartzen da kanpotik datozkion desberdintasunen aurrean eskolak ezer egin ezin duenaren iritzi zabaldua.
 - ✓ Egunerokotasunean, ikasle zein irakasleak ez dira sexismoaz kontziente izaten. Diskriminazio sexista, paradoxikoki, nesken eta maistren portaeren errefortzuarekin ematen da. Ez dago ia erresistentziarik eta bai, aldiz, beraiengandik espero denarekiko egokitzea. Bestalde, irakasleriak ukatu egiten du ikasleekin duen harremanean inolako tratu desberdintasunik egiten duenik. Ikasleekin ematen diren elkarrekintzen eta irakaslegoaren ezkutuko itxaropenen analisisiek, aldiz, erakusten dute irakasleek nola proiektatzen dituzten desberdintasunak sortzen dituzten diferentziak. Zaila dirudi, beraz, ikasle zein irakasle aldaketak emateko prest egotea arazotzat bizi ez duten zerbaiten aurrean.
 - ✓ Sexismoa ez da soilik talde sexual batengan eragina duen arazoa, baizik eta ikasleria osoari dagokiona. Neskei honela eragiten die: sozializazio femeninoaren ondorioz, ikasketa eta lan aukeraketari dagokionez, ekonomikoki eta sozialki gutxiago baloratuak diren aukerak egitera eramaten ditu. Bestalde, rol sexual mugatua barneratu eta bere gain hartzen dute funtzioei eta baloreei dagokienez, hau da, genero femeninoa bere egiten dute horrek dituen ondorio sozial guztiekin (besteen zaintza, altruismoa, mendekotasun emozionala, etab.). Mutilei, bere aldetik, sexismoak bestela eragiten die, maskulinitatearen balore zehatzetan sozializatzen direlako (independentzia, arrakasta profesionala, sentimenduen kontrola, etab.) eta tradizionalki femeninoak diren baloreetarako sarbidea ukatzen zaielako.
 - ✓ Aurreko puntuak erakusten digu sexismoa jatorri bikoitzeko arazoa dela. Desberdintasun sozialen arazoa da emakumeek lanpostu zehatz batzuetarako sarbidea mugatua (ez formalki baina bai errealitatean) duten neurrian. Sexismoa ere hierarkia kulturalen arazoa da eskolak eta gizarteak eredu kultural zehatz bat soilik baloratzen baitute, genero maskulinoarekin lotutakoa hain zuzen ere, eta ez dute kontutan hartzen edo isildu egiten dute kultura femeninoa. Beraz, indibiduoari eta baloreei eragiten dien arazoa da. Zentzu honetan sexismoa beste edozein diskriminazio kultural motaren baliokidea da. Eskolak, instituzio sozial oro bezala, pertsonak berdindu egiten ditu legitimo eta unibertsaltzat aurkezten den balore sistema bakar batean oinarrituta, eta ez die lekuri uzten isildutako kulturei. Diskriminazio sexualak, beraz, zerikusia du curriculumean egiten den kultura femeninoaren errepresentazio faltarekin eta femeninotzat hartzen diren jokoaren marjinazioarekin. Auzi hau oso garrantzitsua da eskola hezkidetzaile eredu lortzeko.

Sexismoaren fenomenoaren konplexutasunak erakusten digu ez dagoela aldaketarako errezetarik berehala ezarri daitekeenik, are gehiago uste dugu, aldaketa sakon oro bezala, denbora behar duen lana dela hau. Baina pentsatzen dugu beharrezko zeregina dela etorkizunean emakume eta gizonak berdintasunean biziko garen mundua eraikitzeko.

Emilia Moreno, Xavier Bonal, Alicia Alonso eta Amparo Tome autoreen testuetan oinarritutako idatzia.



MATERIAL DIDAKTIKOAREN EZAUGARRIAK

Karpeta honetako unitate didaktikoak egiterakoan, gure helburu nagusia izan da irakaslegoari tresna eskuragarria eskaintzea geletan hezkidetzari lotutako gaiak lantzeko eta hori eginez, pixkanaka eskolako egunerokotasunean **genero ikuspuntua** izateko sentsibiltatea piztea.

Karpeta formatua eman diogu alde batetik erabilgarria iruditzen zaigulako, eta bestetik bukatu gabe dagoelako. Hemendik aurrera egingo ditugun unitate didaktikoak formatu honetan iritsiko zaizkizue ikastetxera karpeta osatu ahal izateko.

Materiala irekia eta malgua da, guk proposamenak egiten ditugu, baina hori besterik ez dira, proposamenak. Hezkidetzaren lantzeko ideiak eman nahi dizkizuegu, hortik aurrera zuek jakingo duzue inork baino hobeto zuen geletan zer eta nola erabili. Formatua unitate didaktikoarena bada ere, uste dugu batzuk erraz bihur daitezkeela proiektu.

Unitate didaktikoak bi multzotan antolatuta ditugu:

- Harremanak berdintasunean. Martxoaren 8aren inguruan bidaltzen dugun materiala da hau. Atal honetan sexu bereizkeriak ikusarazi eta parekidetasunean bizitzen ikasteko gaiak landuko dira: elkarreantzekizuna, hezkuntza afektibo sexuala, lan munduari lotutako sexu estereotipoak...
- Indarkeria sexistaren prebentzioa. Azaroaren 25aren inguruan bidaltzen dugun materiala da hau. Indarkeria mota desberdinak ikusarazi eta honi aurre egiteko gaiak landuko ditugu atal honetan. Tratu onak, indarkeria sexista, ikusezintasuna...

Unitate guztien eskema berbera da:

- Sarrera: Gaiaren kokatzeko.
- Abiapuntua: Gaiari hasiera emateko abiapuntu ideiak aipatzen dira.
- Helburu orokorra: Unitatearen azken helburua.
- Helburu didaktikoak: Azken helburua lortzeko helburu zehatzak.
- Oinarrizko gaitasunak: Unitatean lantzen diren oinarrizko gaitasunak.
- Edukiak: Curriculum berrietara egokituz edukiak ez ditugu sailkatu kontzeptu, prozedura eta jarrerazkoetan.
- Jarduerak:
 - Jarduerak diseinatzerakoan oinarrizko printzipio metodologikoak hartu ditugu kontutan, besteak beste, gelan giro egokia sortzea, ikasketa aktiboa erraztea, autonomia bultzatzea, informazio iturri desberdinak erabiltzea, ikastetxean ikasitakoa eskolatik kanpo erabilgarria izatea...
 - Unitate batzuetako jarduerak bi mailetan sailkatuta daude: HH-LH eta LH-DBH, baina beste batzuk ez. Sailkapen hau, hala ere orientazio gisa erabiltzeko da, badaudelako maila guztietara egokitu daitezkeen jarduerak.
- Ebaluazioa: Ebaluazio tresna, teknika eta irizpideak ezartzen dira.
- Baliabideak: Unitatea lantzeko erabili daitezkeen baliabide materialak (liburuak, ipuinak, web orriak...).

Sarrera honen bukaeran hezkidetzaren gaiarekin lotutako baliabide materialak doaz.

Eta bukatzeko esan, egunerokotasuneko egoerak egoera hezkidetzailleak bihurtzera animatu nahi zaituztegu beti ere errealtatearen behaketatik abiatuta, ikasgelan hausnarketa eta ikerlan giroa bultzatuz, ikasleen ezaugarriak kontutan hartuz, dakitenetik abiatuta ezagutzak mobiliza eta eraiki ditzaten.



BIBLIOGRAFIA



Liburuak:

- **Género y educación. La escuela coeducativa;** GRAO Argitaletxea
- **Las actitudes del profesorado ante la coeducación:** Xabier Bonal; GRAO Argitaletxea
- **Triunfantes perdedoras. La vida de las niñas en la escuela:** Gloria Arenas; GRAO Argitaletxea
- **El harén pedagógico. Perspectiva de genero en la organización escolar:** Hainbat egile; GRAO Argitaletxea
- **Mujer y educación. Educar para la igualdad, educar desde la diferencia:** Hainbat egile; GRAO Argitaletxea.
- **La coeducación. Una propuesta contra la violencia sexista:** Instituto Andaluz de la mujer. http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/IMG/pdf/LIBRO_COEDUCACION_PDF.pdf

Hezkidetza lantzeko materialak:

- **Arrasateko udalak bertako ikastetxeekin landutako hezkidetza proiektuko boletinak.** <http://www.arrasate-mondragon.org/Udala/Egituraketa/Hezkuntza/Boletinak>
- **Cuadernos de educación no sexista** http://www.inmujer.migualdad.es/MUJER/publicaciones/catalogo/cuadernos_educacion.htm
- **Gida didaktikoa:** “Como compartir la vida en igualdad” http://www.educarenigualdad.org/Upload/Mat_171_guiacompartir_consejo_madrid.pdf
- **Coeducación: dos sexos en un solo mundo** <http://www.isftic.mepsyd.es/formacion/enred/ofrecemos/coeducacion.php>

Hezkidetza web orriak eta blogak:

- <http://zubiakeraikitzen.blogspot.com/>
- <http://www.urtxintxaeskola.org/argitalpen.php.htm>
- www.intersindical.es - Organización de mujeres. Atal honetan hainbat unitate didaktiko daude.
- <http://www.educarenigualdad.org/>
- <http://blog.educastur.es/marianmoreno/>